



Efoma'ko Batikano'tik.

Aeste onetako izpafik garantzitsuena Aita Santua'k S. Maria la Maggiore'ra egin dabe osterea izan da. Ila onen 11'n, XI Pio'k goizeko zortizterdietan belbil safatu baten urten eban. Berearen aurretik yaurliena yoyan eta ostetik beste bost belbil. Eskutuan yoyan afen, bidean zain egoan gizoste izugarriak txalo gogofak yo eutsotzan. Txalde gustiak apainduta agertzen ziran. Egualdia zoragarria. Eleiza'ren inguruak gizostez beterik egozan eta bertan ziran espanar eta inditar bideztiak be. An ziran 19 kardenal eta latefi Ordolariak be. Eleiza bafiztauta, andikiro apainduta argiz beterik agertzen zan. Dolci kardenalak agurtu eban, eta Doipuru-aulkian, gustiak onesten, Eleiza'n sartu zan. Yaupa nagusia Dolci kardenalak egin eban. Amabiak eta amafean balkoira agertu zan, gizosteak txalo, gudariak agurtu ta eresbatzak alaikiro yoten eban bitartean. Aita Santua'k, beso biak gizosteganuntz edatuta luzaroan agurtu eban. Ondoren gustiak ixilik, Aita Santuak abots edef eta argiz «Confiteor» esan eta efi onetsi eban. Txalo ta gora izugarriak entzuten ziran. Ordu batak eta zortzian urten eta erdietarako Batikano'ra eldu zan.

India'ko lenengo bidezkundea.

Orain arte India'tik egin diran bidezkundeetan, talde txikietan ainbat bider Efoma'ra eldu izan dira, baña oingoan, eta lenengo talde eder baten eldu dira. 180 bideztik, euron artean 17 yauparik, lenen Lur Deunak ikertu ondoren, Efoma'ra bidezkundea egin dabe. Lur Deunetara eldu ziranean, Le Tellier aba buru ebel, txalde aren erdian belaunikotu ta «Aita Gurea» ta «Agur Maria» esan eta luñari mun egin eutsen.

Beste bidezkunde batzuk.

Aita Santua, beste bidezti batzuen artean, onexek ikertu dabe: Yugoslavia'tik 200 kroata ta sloveno. Aita Santua'k oraintsu Bere kaltez zabaldu dituen guzuei erantzunaz esan dautse berarizko pozagaz ikusten dituala, eta tamalez ikusi dabelak Yugoslavia Berak ez dabela maite esaten ibili dirala; etsayak izan ba'ziran ainbeste ez ebela saminduko, baña aizkideakandik etof dalako bere samina andia dala. Eta esan eutsen: Aingeru bat etofiko ba'litzakizue Aita Santua'k Yugoslavia ez dabela maite esaten, ez ziñestu, egia ez leuke esango-ta. Austria ta Alemania'tik 300; Altaara ta Acquaviva'tik 150; Sutri ta Nepi'tik 1.500; Kalocsa, Ungaria'tik 604; Kanada'tik 100; Treveris'tik 500; Skocia'tik 250; euron artean 50 yaupari; Rumania'tik 200; Brasil'dik 25; Ingalanda'tik Columban Deunaren saldunak 200; Olanda'tik 125 Salestar laguntzale; Tursi'tik 350; Acerenza ta Materno'tik 500 Potenza ta Marsico'tik 230; Boiano ta Campobasso'tik 500;

Adria'tik 508; Teramo'tik 450; Patti'tik 200; Imola'tik 700; Otoi Bialguntza'ko 200; «tranviario» talde edefa; Desio, Milan eta ingurutako 15 irakasle ta 100 ikasle; Acerra'tik 300; Dublin'go irlandar ikastetxetik 40 ikasle; eta Torino'tik 60 gogo-iñarkun bazkunakoak. Kataluña'tik 300 gaste, eta beste 700 España gustitlik.

Katolikoak eta «ziñea».

Latefi arteko zine onen aldeko Bazkunak, igaro dan ilaren azkenean, Bruxelles'en batzafa izan dabe, katolikotafak zine onaren alde zer egin bear daben adiraltzeko. Latefi-ordelariak onexek izan dira: Austria, Beljika, Alemania, Parantze, Italia, Luxenburgo, Olanda, España'kok gustiak yaupariak. Txekoslovakia, Ingalanda, Polonia, Portugal eta Suiza, idazkiz batu dira. Lanak asi aurretik Aita Santua'ri menpetasun agurabialdu eutsen, eta onetsi ta itxaropen andia Batzar aretan ipinten ebala esanaz erantzun eutsen. Batzorde bat izentau eban lan egiteko eta bein-beñean Bruxeles'en landola izango dau. Latefi bakoitzekoak ilean gitxiendik 5.000 prankogaz landola oneri laguntzeko gelditu ziran. Erabagien artean Paris'en dagoen Latefi Arteko katoliko izpafingi. Landola'gaz artu emonetan astekoa artu eban. Izpafingiei ziñe onaren alde zabal kunda egiteko eskatzen, eta gustiak alkartuta pelikula onak egiten alegintzea. Mixiolariet zabalgundea egiteko erabiliez gañera, irakatsi ta yolas aldira zine ona erabilteko al dabenez eskatzea erabagi eban.

Batzafa amaitu ebenean, Van Roey kardenala ikertu eban, erabagien bafi emoteko. Atsegiñez entzun ondoren, itzaldi eder bat egin eutsen zine txafa onduteko katoliko gustiak alegin egin daben eten barik lan egiteko esan eutsen. Ordelarik onetsiaz ikertze ta batzar au amaitu zan.

Buenos Aires'ko Eukaristi-Batzafa gertatzen.

Datofen urtean, Ufila 10'tik 14'ra Eukaristi-Batzar orokofa Buenos Aires'en ospatuko da. Argentina ta inguruetako latefietan be, gar andia dago ta gogoz lanean diardu. Batzorde onetan idazkari ordekotzat Gazteiz'en irakasle izan gendun Bizkafa'tar Zakari yauna izentau dabela pozez ikusi dogu. Ondo gertatueko Goterkietan Eukaristi Batzafak egiten aurtengandik asi dira, eta egitamuagaz idaztiño bat gertau dabe ta laster 500.000 iyeke irafiko ditue. Latefietan bidezkundeak gertatzen diardue. Olanda'tik beintzat asko yoango dira. Rotterdam itxasontzia, ango Eukaristi-Batzafetako idazkaritzagaz itundu da, Itxasontzia 24.000 toneladakoa da, eta bideztiz betetako asmoa dabe. Zine bidez be Argentina'ko Katoliko Ekiniza'n egiten dabenen bafi emoteko asmoa dauke, pelikulak gertatzen

Euskal-erriko izparrak

NAPARA

Iruña.

Egualdi politik ari ditu, udazkeneko aro goxoa; egunaz iguzki argia eta gauaz otza.

Juan den asteko izafen kordokateak jendeak lafitu zituen, noiz nai argiak erortzen ikusi baldin baditugu, ez leengo egunean bezela, iduri bai-zuen izar gustiak bera eldu zirela.

Juan den igandean, andiki jaitu zuten, omen andiko Donianeko seme Juan de Huarte; aren gorasafe gisaz, afizko orogafi eder bat agertu zuten Takonera delako loretegian, Zelba jaunak efanez, nor izandu zen doniandar osakin jakintsuna.

Afatsidien befiz, bilkura andi batean Marañon osakin aipatuak itzaldi eder bat irakurtu zuen «Examen de ingenios» delako aren gutun bakafak dituen on guztiak adiaraziaz. (1) Europako izkuntza andienetara itzulikatu zuten, gutun tipia delarik, ain mamisua da, omen andia eman bai dio, jakintsunen artean.

Doniane Garaziko alkate jauna, Haramburu mintzatu zen, eskafak emateko bere efitfen izenean, ofen andiki jaitu dutelakoz Donianeko seme bat.

Jaun Prefeto-ren ordezkoa eta Inchauspe jauna ere, emen ziren.

Azkenik izendatu duten gobernadorea radikal-sozialista omen da: Efpublikak beste onik ezpalu, gobernadore-gai asko bide ditu (bi urtez sei gobernadore) eta nik uste nuela, efi bat bidatzeko lana, lan zailenatarik zela! Orañik ez da etofi eta bizkitarteen aren ordezkoa, Auzitegi-ko buruzagiak egiten du.

Diputazioeak milon erdi bat pezeta ematen ditu «Maternidad eta

diardue-ta. Dirudienez benetan edefa izango da Eukaristi Batzar au.

Polonia'ko Katoliko izpafak.

Czestochowa'n Jasna Gora'ko lekaretxean, later eta gerkar gurkerako Gotzafiak batzar bat izan dabe, Katoliko-Ekintza'ri bultzada bat emoteko, erlaren bear-izanak aztertuz. Katoliko zabalkunderako yaupariak aurkitzen dituen eragozpenak aztertu zituezan. Hlond kardenal eta Gotzain burua ta 30 Gotzain bildu ziran.

—Gero Czestochowa'n bertan Edvige bakalanderearen omenez egin diran yayak Gotzain-Mesa bategaz amaitu dira. Gotzain gustiak bertan ziran. Amaitu zanean, alde gustietatik eldutako ordelariak, idazki bat aurkeztu dautse, Aita Santua'ri Edvige zoriondun iragafi dayela eskatzeko. Azkenean bertan batu ziran 100.000 lagunei onespina emon eutsen.

Volinia'n Eukaristi batzar bat ospatu da. Te Deum bategaz amaitu zan, eta azkenengo egunean egin zan bidezkundera 5.000 lagun eldu ziran.

—Ila onen 22'n Beferoskunderaren XIX'n mende edo gizaldia ospatzeko Varsovia'n yai andiak izango dira. Egun ofetan mixiño-eguna be izango da, eta gizoste izugarria.

M.'tar G.

Inclusa» Barañainen kokatzeko. Ordu zen.

Tennis Club delako etxe-leku befi bat egin dute eta aren idekitzea igandean zuten.

Asiera guztietan, zergatik ote da, dantza dutela jai beafena?

Donezteben, bi mila luistar bildu zen; elizan eta frontonean euskaraz eta erdaraz mintzatu ziren guztiak.

Argi ufatzeko (aurora) afosarioa, aurten ere, eliza danetan egiten da; kafikaz-kafika egiten zelarik jzein eder zen!

Zilargintzako botiga ebatsi zutenak, atzeman dituzte Bilbaon, uferia geiena ere bildute. Noiz bait bedere, iri-zainek zerbeit egiten dutela!

Juan den igandean sei zezen il zituzten «Caridad» egiteko; bildu zutena «Urriki-etzeko» izandu zen.

Diputazioeako buruzagia eta jectore izan bat, eztabaika ari dire, «Diario»tik, izendatze baten ufatze-ari buruz; bakoitza bere burua xuritzen.

DIARIO DE NAVARRA-k bere ofietara bildu du Unamuno jaun xafak, abertzalen aurkeriaz diona; aurkeria bat izanagatik, begi onez ikusten duela.

Ez omen du odolari, eta euskaldungoari uko egin: jakintsunak izanez geroz jaun ori eta beste batzu euskar lan edefak egin lezazkete eta guk ikasi beafez, bozik irakurtuko.

Euskararen zati nagusia latinetik artua omen du. Sara-ko «Axular» en egunean euskaldungoari baztefetik beatzen zion, ba. An ikusi nuen Unamuno jauna baztefetik befandan bezala; orduan España-tik botata, Endayan zagon.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala na duela.

LARREO

(1) Ez nuen uste, Marañon jauna, unelako lan eder baten egiteko gai zela; ari esker napatar afontek ikas dugu nor izandu zen Huarte zena e'a nolako gutun andia dugun «Examen de ingenios».

BIZKAYA

Mañaria.

Laster.

Euzko-Araudijatzazko auteskundiak ganian doguz. Datofen ilaren boskafena (J. L.) euzkotafen zintotasuna dala bide, Euzkadi geure abefijari bere azkatasunaren sati bat lortu-eragiteko eguna. Garantzizko eguna. , Araudija lortu ala ez, geure gain dagolako; euzko seme on eta gaiztoen egiñetan...

Geuk abertzaliok beintzat, egunaren gafantzij» ta Araudijaz ixan leikeguzan onurak gomutaratuta, geure autarkija Araudi alde emongo doguz, ta emparauak be ori egin dagijien aleginduko gara.

Erijotza.

Bariku gabaz il zan Ikabaltzeta'tar Genare, Ikabaltzeta Beaskoa base-tzeko alabia, 56 urtedun zala. Jaunak zeruan euki begi. Sendijari atseka-bian laguntzen dautsugu.

Aurten, erijotziak, geure efitxuau, saritxo ikertu dau; dan orduko amai-ka notin il dira ta. Efiya osasuntsu dagonetan, bost edo sei baño ezтира ilten.

Juan-Etorijak.

—Bilbao'ra juañ ziran Askorbebe-tia'tar Pantzeske neskatala ta Magunazelaya'tar Aukene ta Bizkafa'tar Katariñe anderak.

—Santurtze'tik etofi ziran Kapan-aga'tar Bitor eta emaztia.

—Algorta'tik, Jauregi'tar Ander.

—Aldikadatu bat igaroten aurkitzen dira, Zugatzaga'tar Serapi ta Domeka Ibfangelua'ko mutil gaste-tzuak.

—Egun batzuk emen igarota Otxandiano'ra juañ zan Etxanobe'tar Kandidate anderea.

Gexorik.

Magunazelaya'tar Joseba'ren emaztia dan Ertzila'tar Eustoke anderea, Bilbaon, San Sebastian jaunaren osategijan gexorik oso txarto aurkitzen da. Ossuna bijotaz opa dautsugu.

Elizhixuna.

Lengo igandian, Pantzeska'tar Iru-gafendafak euren ileroko elizhixuna egin eban.

Abestijak entzun.

Bariku gabaz, emeko abertzale batzuk, Bartzelona'ko Euzko-Etxian abesturiko euzko abesti-berkoyak ifasoyatik entzun be. Patziko sakrista-urari beintzat, abestijak zirala-ta sortu yakon pozak, bijaramonian be ganez egiten eutsen. Patziko, abertzale ona dogu ixan be-ta.

MAÑARIKO

Abadiño.

Ezkon deyak.

Mondragon'tar Josefina, Zafabe-tia'tar Antonio Yufetakoena. Mondragon'tar Maria Luisa, Zelaya'tar Emeterio Yufetakoena. Aretio'tar Juan Kruz Altzefeka'tar Maria Eloffio'koena igaro dan igandean eleizan iragafi ziran. Zorionak.

Gotzonak donokira.

Lejuru'tar Lorenzo ta Ayarzaguenat'ar Maria'ren seme Antonio igaro dan astean il zan.

Estatutoaren auteskundiak.

Datofen ilaren 5'an Estatutoaren botaziñoak ixango dira. Euzkeldunentzat Estatutoak eskubide andiak dakaz. Eta euzkelduna danak botorik emon barik egun ofetan eztau itxi bear. Gero damututea alpefekoia izango da.

Eleiz gastedien yaya Beria'en.

Datofen igandean, 29'an Eleiz gastediak yai ospetsuak Befiz'en daukiez. Abadiño'ko gasteak gertu dagoz yoateko ta azi ona edozein tokitan zabaltzeko. Ori mutilak eta aufera.

Astronomoa.

Serapio'k, esan daustienez, oso ederto igafi ei-dautso egualdieri lengo astean. Afinda baño be obetoago egon dala-ta, titulue emon bearko yakola. Gizon ondo senean eta sentzundunen eretxia artu dot, eta oneik be bayetzera dagoz. Tira ba, titulori oso-osoan emoten yako, eta urte askotan aintzaz eroan dagiala. Gero Serapio titulue daukozule-ta, ez edozein eratan ibili; titulue beafagaz zaindu egin bear da, ta alperkeriegaz eta igafi ezagaz galdu be bai.

Mentola'ko

bide bafia laster asiko da. Ia mutilak gogor egin bear dogu atxarteragiño, eta gero, geroakoak. Julian lo ezta egongo, ta beragan itxaromena euki bear dogu.

Jayotza.

Uria'tar Jon eta Bilbao'tar Pantzeske'k, alabatu bat, Miren Lore euzko izen politegaz Ugutzau dabe. Zorionak.

TRANA

Ereño.

Bake Santua.

Nozbait be etofi jaku bake Santue geure artera zorionien eta iraun dafi gijela bere geriziek geure artien befi eta beti; Jaunak alan nai izan dagijeya geure onerako bada beintzat. Oso amaitu dire geure artien izen doguzen eztabidak, batez be EKIN'en arazuek; esan gure dot ba bein epai-